ehbildu

Lasarte-Oriako

# Herri Programa



ehbildu

ehbildu

## HERRIAN IKASI, LAN ETA BIZI

Kalitatezko bizi-proiektuak bere osotasunean garatzeko aukera eskaintzen duen herria izatea nahi dugu Lasarte-Oria, eta gure proposamena argia da: lasarteoriatar sentitzen garenok herrian ikasi, lan eta bizitzeko aukera izan nahi dugu.

## HERRI KOHESIOA

Lasarte-Oriak Euskal Herri anitzak biltzen ditu bere baitan, jatorri, pentsaera, kolore eta hizkuntza pluralak. Komunitate kohesionatua da gurea. Hauxe denez gure ondare preziatuena, herri kohesioa defendatu eta are gehiago sendotzeko konpromisoa daukagu.

## BIZITZA BIZIGARRIAK

Guztiontzat bizigarria den Lasarte-Oria baten aldeko proposamena da gurea: giza eskubideak oinarri dituena, pertsona guztien integrazio osoa bermatuko duena, gizarte bazterketari, babesgabetasunari eta ezberdinkeriei aurre egingo diena. Udalaren eragina handituko dugu eta guztientzat ezinbesteko baliabideak eskaini.

## HERRITARRON UDALA

Herritar guztien parte hartzearekin gobernatu nahi dugu, komunitatearekin kooperatuz: hori da gure egiteko modua. Udalak eta herritarrak elkarrekin lan egiteko espazioak eta erabakiguneak sortuko ditugu. Baliabide publikoak modu eraginkor eta arduratsuan erabiliko ditugu.



ehbildu

Donostiari itsatsita egoteak ezaugarri bereziak sortzen dizkio Lasarte-Oriari. Honen aurrean, arriskuak eta aukerak aztertu eta erabakiak hartzea tokatzen da. Lasarte-Oriako EH Bildun egin dugu lanketa hori, eta gure proposamena argia da: Lasarte-Oriatar sentitzen garenok herrian bizi, ikasi eta lan egin nahi dugu.

Hau horrela, Lasarte-Oria kalitatezko bizi-proiektuak bere osotasunean garatzeko aukera eskaintzen duen hiria bilakatu nahi dugu, hiriburuaren menpeko logela-hiri bat izan ordez.

Bestalde, Donostiako udal agintariek azken urteetan hartu dituzten erabakiek (turistifikazio masiboa bultzatu, etxebizitzekin espekulazioa baimendu...) etxebizitza krisi larria eragin dute hiriburuan, eta horren uhin hedakorrak Lasarte-Oriara iritsi dira. Horrela, Lasarte-Orian bizi-proiektu bat garatu nahi duten herritar askorentzat gero eta zailagoa bihurtzen ari da egitasmo horren oinarria izango den etxebizitza bat eskuratzea, eta baldintza egokiagoak dituzten herrietara joaten ari da, egoerak behartuta.

Honen aurrean, Lasarte-Oriako udalak ezin du beste aldera begira egon, orain arte bezala. EH Bildutik arazo honi merezi duen garrantzia eman eta proposamen zehatzak prestatu ditugu Lasarte-Oriatar sentitzen den orok bertan bizitzeko eskubidea eta aukera izan dezan.

Hori horrela izan dadin, honako neurri eta esku-hartze hauek garatuko ditugu Udal Gobernutik:

## HERRIAN IKASTEKO

- Herriko hezkuntza-komunitatea saretzeko eta elkarguneak izateko ezinbesteko egiturak sortu eta sustatuko ditugu:
    - Hezkuntza-batzordea gauzatu, indartu eta berregituratuko dugu: udala, hezkuntza-formala eta guraso-elkarteek osatuta.
    - Hezkuntza-komunitate osoa bilduko duen egitura sortuko dugu: udala, hezkuntza-formala, ez-formala, herriko elkarte eta eragileak, guraso elkarteak, ikasleak (haurrak, nerabeak, helduak) eta inplikatutako guztiekin.
- Ikastetxeen jolastokien birmoldaketa gauzatuko dugu.
- Landaberri ikastetxeko bideari konponbidea emango diogu.

ehbildu

- Ikasleek (haurrak, nerabeak, helduak) herriko ikastetxeetan matrikulatzeko laguntza eta sustapen-lana egingo ditugu.
- Hezkuntza proiektuak sortu eta garatzeko baliabide ekonomikoak eskainiko ditugu.
- Ikasleen euskara-gaitasuna bermatzeko eskola orduz kanpoko jarduera/zerbitzuak eskainiko ditugu.
- Eskola orduz kanpoko jardueretan izena emateko laguntzak eskainiko ditugu.

## HERRIAN LAN EGITEKO

- Oriako industria-gunea berroneratzeko proiektua abian jarriko dugu, ekonomia sozial eraldatzaileari eta proiektu komunitarioei lekua eginda. Horretarako, berroneratzeko-plana eta beharrezko hirigintza plangintzaren aldaketak egingo ditugu.
- Inguruko nekazari, abeltzain eta ekoizleentzako merkatu eraikin bat eraikiko dugu erdigunean.
- Kotxeras eremuan jarduera ekonomikoak txertatzeko aukerak aztertuko ditugu, lanpostuak sortuko dituzten jarduera ekonomiko bateragarriak txertatzeko eta hiri biziago eta jasangarriago bat bermatzeko.
- Landa-eremu inguruko ekoizleen baldintzak hobetu eta sustapen neurriak inplementatuko ditugu. Horretarako, egungo ekoizleak gehitu eta ekoizpena handitzeko nekazal erabilerarako lurzoruak babestu eta sustatzeko araudia egingo dugu.
- Herriz-herriko logikak gainditu eta eskualde mailan eragiteko apustua egingo dugu. Beterri-Buruntza Garapen Agentziaren bidez, inguruko udalerriekiko lankidetza dinamikak eraiki eta baliabide gehiago eskainiko ditugu eskualde mailan, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorrean eragiten jarraitzeko.
- Langileen prestakuntza errazteko laguntzak eskainiko ditugu, teknologia berrien aplikazioaren eta etengabeko berrikuntzaren alorretan.
- Klausula sozialak txertatuko ditugu udalaren erosketetan tokiko dendei lehentasuna emateko.

ehbildu

## HERRIAN BIZITZEKO

- Etxebizitzarako aholkularitza-zerbitzua sortuko dugu. Honako funtzio hauek beteko ditu:

    - Etxebizitzaren (eskaria, eskaintza, aurreko bien baldintzak, etxebizitza hutsak, egungo ondare eraikiaren egoera, eraberritzeak, erabilera aldaketak, eraikinen eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarrien sorkuntza eraikin hauetan...) problematika eta aukeren inguruko azterketak egin eta esku-hartze planak diseinatu eta koordinatu.

    - Zaharkiturik geratu diren auzuneak berroneratzeko planen jarraipena egin.

    - Etxebizitza publiko eta anitzek (etxebizitza komunitarioak, alokairu soziala, babes ofizialeko etxeak) osaturiko parke eraginkor bat osatu.

    - Herritarrentzako eta bizilagun komunitateentzako arreta eta aholkularitza zerbitzua eskaini, ondare eraikiaren eraberritzea eta eraginkortasun energetikoa lantzeko.

    - Energia komunitateak osatzeko proiektuak eta aholkularitza zerbitzua ezarri.

    - Etxebizitza publiko programa abian jarri: nagusien autonomia mantentzeko etxe tutelatuak, tratu txarrak jasotako emakumeak, nerabeak, emantzipazioa...

- Babestu beharreko ondare eraiki eta naturalaren balioa babestu eta egoera onean mantentzeko ordenantza egingo dugu.

- Etxebizitza beharra asetzeko, etxebizitza hutsen errolda egokia osatuko dugu eta erabiltzeko neurriak ezarriko ditugu. Eraberritze eta egokitze dirulaguntza hitzartuak, besteak beste.

- Auzoetako estalpeek, eguneroko bizitzan, auzoaren erabilera gehien dutenen (zaintzaile eta zainduen) bizi kalitatea hobetzen dute eta auzo mailako antolamendu komunitarioak sustatzen dituzte. Beraz, auzoetako estalpe aukerak aztertu eta diseinatuko ditugu.

ehbildu

Eskualde eta lurraldeko gainerako herriekin parekatuta, Lasarte-Oriak badu berezitasun bat: harrera-herria izan da XX. mendeko 60ko hamarkadatik aurrera. Urte luzeetan izugarrizko hazkundea jasan zuen herriak, gurera bizitzera etorritako herrikide andanari esker, eta idiosinkrasia eta soziologia berezitua garatu ditu.

Horri eskerrak, Lasarte-Oria egungo Euskal Herriaren paradigma txikia da: Euskal Herri anitzak biltzen ditu bere baitan, jatorri, pentsaera, kolore eta hizkuntza pluralak.

Hala ere, oso zatikatutako herria ere izan da gurea. Gure lurrak izan dira zatikatuak, gure desirak eta eskubideak, eta baita gure herri-nahiak ere. Horren aurrean, baina, lasarteoriatarrok zati horiek elkar-josteko esfortzu izugarriak egin ditugu batean eta bestean, Lasarte-Oria kohesionatu, justu eta parekide bat lortzeko. Herritik, herritarrekin eta herritarrentzat.

Oraindik ere bada gure herri kohesio hori baldintzatu nahi duenik, ordea, mehatxuak denboran eguneratuta. Zatikatuta nahi gintuztenek, orain, periferian nahi gaituzte, beste batzuk soberan dituzten azpiegitura eta etxebizitzen hornitzaile lanetan.

Gurea, ordea, Lasarte-Oria kohesionatua da, elkarlotua, elkar-konektatua; osasuntsua, kirolaria eta mugitua; larrialdi klimatikoari aurre egiteko prestatua; bere herritarren giza eskubideen defentsa muturreraino defendatzeko prestatua; anitza, koloretsua, bigarren mailako biztanlerik gabea; euskaraz mintzo dena Euskararen Maratoialdian eta baita etxeko goxotasunean ere; bere elkarteak zaindu eta mimatzen dituena...

Kohesio hori da gure ondare preziatuena, eta hori defendatu eta are gehiago sendotzeko lanera dator EH Bildu:

## AUZOAK ETA HERRIAK KONEKTATU

- Bide gorri sareak sortu eta indartuko ditugu: eskualdeko herriekin konexioak egiteko eta auzoetako konexioak egiteko, Urnieta alderako bidea lehenetsiz.

- Garraio publikoa indartuko dugu, mugikortasun jasangarria sustatzeko:

    - Eskualdeko herriekiko konexioa indartzeko eta hiribusaren zerbitzuak hobetzeko neurriak hartuko ditugu.

    - Hiri garraio publikoari dagokionez, hainbat neurri hartuko ditugu bere erabilera sustatzeko: Manttangorriren ibilbidea luzatu, ordutegiak handitu, doakotasuna, autobus irisgarriak ...

- Plaza “gogorrak” birpentsatu eta itzala eta berdeguneak gure espazio urbanoan txertatuko ditugu, berdegune horiek funtzio dekoratiboa izateari utzi eta espazio bizigarriak bilakatzeko.

- Donostialdeko PTP-ak ezartzen duen moduan, Bugatitik hipodromoko zubira doan bidearen konponketak egiteko indarra egingo dugu udal-mailan.

- Auzo mailako estrategiak landuko ditugu, ekipamendu/zerbitzu publiko eta pribatuak bertan izateko. Hartara, mugikortasun jasangarriago bateranzko pausoak emango lirateke eta komunitate bizitza/zaintza indartuko litzateke.

- Udalerriko hainbat kaleren oinezkotzearen aldeko apustua egingo dugu. Oinezko, bizikleta, garraio publiko eta zama lanetarako (lehentasun hurrenkera hau errespetatuz) soilik erabili ahal izango diren kaleak antolatuko ditugu; bestek beste, Kale Nagusia, Arkupeko biribilgunetik Tajamarreko biribilguneraino.

- Kale Nagusian zehar bizikleta bide ardatza egingo dugu, Antxisutik Goiegiraino. Bizikleta bideak seguruak, erabilgarriak, ahalik eta zuzenenak eta erakargarriak izan behar dira.

- Bizikleta eta ibilgailu elektriko txikiak gordetzeko lekuak (babestuak) jarriko ditugu, auzoetan eta erdigunean. Erdigunera iristen direnek edota etxean jasotzeko lekurik ez dutenek erabiltzeko aukera izan dezaten.

- Bizikleta alokairu edo lagapen zerbitzua aztertu eta sustatuko dugu (elektrikoa ala ez).

- Lurraldebus autobus zerbitzua murriztu egin da udalerrian, eta, beraz, Lasarte-Oriarentzako ordutegia zabaltzeko eskatuko dugu.

- Goiegitik Atsobakarrera dagoen Foru aldundiko errepide zatian bidegorria lotura osatzeko indar egingo dugu.

- Energia-kontsumoa murrizteko apustua egingo dugu garraioan: ibilgailu elektrikoen erosketaren aldeko jauzia emango dugu. Oro har, edozein ibilgailu berri erostean elektrikoak lehenetsiko ditugu, errekuntza-motorrekoak ordezkatuz.

- Arnasgune natural bat da Oria Ibaia eta bi ertzak egokitzea proposatzen dugu. Espazio libre eta berdegune gisa, ibaira jaisteko aukera kontuan hartuz eta bere funtzio ekologikoak indartuz.

- Udalerriko espazio libre eta ibilbideak behar bezala egokituko ditugu (altzariak, argitasuna, iturriak...). Besteak beste, Martin Berasategiko parkea eta Plazaolako ibilbidea.

- Plazaola parke periurbanoa garatuko dugu. Parke horrek erabilera asko jaso ditzake (udako parkea, kirol eta osasun ibilbideak, hiri baratzak, eskaintza

kultural eta artistikoa...), eta, horretarako, parkearen garapenerako plan berezi bat idatzi eta garatuko dugu.

## HERRITARREN SAREA INDARTU

- Anitzen Sarea proiektua berpiztu eta eraberrituko dugu.
- Etorri berriei harrera egiteko harrera-protokoloa diseinatu eta garatuko dugu.
- Herriko elkarte eta eragileen saretzea eta koordinazioa sustatuko ditugu. Horretarako, koordinazio-guneak sortu eta herriko elkarte eta eragileen mapa-berritua osatuko dugu.
- Euskararen normalizazioan urratsak ematen jarraitzeko, eragileekin batera, Euskara-kontseilua sortu eta indartuko dugu.
- Herrian elkarbizitzaren eraikuntzaren alde abian diren dinamikak babestu eta laguntzen jarraituko dugu; hala nola, herritarren bizikidetza taldea zein politikarien mahaia, dinamika horien bidez gatazkak eragindako ondorioen sozializazioa eta pausoak modu partekatuan ematen jarraitzea posible izan dadin.
- Gazte foroak sortuko ditugu, gazteei zuzendutako politikak eztabaidatzeko eta bestelako gaiei gazte begirada eransteko.
- Kirol instalazioak berrituko ditugu, eta Kiroldegitik kanpo ere kirol-guneak sortzearen aldeko apustua egingo dugu.
- Herritarrak Tokiko Energia Komunitatera batzeko laguntzak eta baliabideak eskainiko ditugu. Energia komunitateak pertsonak, enpresa txikiak, elkarteak eta tokiko erakunde publikoak biltzen dituen erakunde juridikoak dira, elkarrekin energia berriztagarriak (elektrizitatea, beroa eta hotza), eraginkortasun energetikoa, mugikortasun jasangarria ... sustatzea helburu dutenak, gertuko onura soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa bilatuz.
- Herriko elkarte eta eragileekin batera agenda konpartitua sortuko dugu, elkarren berri izan eta saretzea sustatzeko.
- Erabilera anitzeko espazio partekatuen aldeko apustua egingo dugu. Herriko elkarte, eragile zein norbanakoek haien jarduna aurrera eramateko espazioa izan dezaten.

ehbildu

Lasarte-Oriatar guztiok eskubide berak eduki beharko genituzke. Are gehiago, herritar guztiok eduki beharko genuke bizitza duina izateko eskubidea. Berdin adineko, emakume, migratzaile edo adin txikiko, guztiok osatzen dugu Lasarte-Oria, eta guztiontzat ezinbesteko baliabideak eskaini behar ditu udalak.

Erabateko gaurkotasuna duten gaiak dira zaintza, migrazioa eta feminismoa zein indarkeria matxista. Gaur egun, ordea, ez dago gaia modu integralean lantzen duen proposamenik: adinekoentzako zaintza ez ezik, haientzako kirol eskaintza proposatzen duena, indarkeria matxista kasuan artatzeaz gain udalari begirada feminista transbersala eskaintzen diona, edota migratzaileei harrera egin eta arrazakeriaren aurkako lanketa integrala martxan jartzen duena. EH Bilduk goitik beherako apustu egin nahi du ziztu horretan. Finean, guztiontzako bizigarria den Lasarte-Orian baten aldeko proposamena da hau: giza eskubideak oinarri dituena.

Norabide horretan, instituzio publikoen eragina handitu nahi dugu, batik bat gizarte zerbitzuetako arta hobetuz:

- Itxaron zerrendetan gehienez 10 egunetan erantzungo dela bermatuko dugu, eta, horretarako, beharrezko baliabideak eskainiko ditugu.

- Herriko errealitate migratuaren diagnostikoa egingo dugu, eta oinarrizko eskubideak bermatzeko neurriak hartuko ditugu (dirulaguntzak, etxebizitzarako sarbidea...)

- Berdintasunean urratsak ematen jarraitzeko apustu sendoa dugu, eta, horretarako, Berdintasun saila eratuko dugu, berdintasun teknikari espezializatu batekin. Horrez gain, Lasarte-Oriako egoeraren diagnostikoa egingo dugu, eta berdintasun-plana garatuko dugu.

- Politika feminista integralak garatzeko, lan egiteko moduan eragingo dugu, zeharlerrotasuna eguneroko praktikan txertatuko dugu: hezkuntzan, kirolean, aisialdian, kulturan...

- Kontseilu feminista indartuko dugu eta loteslea izateko urratsak emango ditugu.

- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeen egoeraren diagnostikoa osatu eta harrera-etxeak indartuko ditugu.

- Emakumeen zentro zibikoaren funtzioen gaineko analisia egin eta espazioaren erabilera zabaltzeko urratsak emango ditugu.

- Prebentzioa sustatuko dugu, bereziki, prebentzio selektiborako programak aktibatuz, eta gurasoekin formakuntza saioak eginez.

- Esku-hartze sozio-hezitzaile eta psikosozialerako zerbitzuak indartuko ditugu. Besteak beste, helduekin bakarka eta taldean esku-hartzeko proiektuak garatuko ditugu; haur eta nerabeekin esku-hartzeko programak diseinatu eta aktibatuko ditugu; eta esku-hartze familiarra indartuko dugu.

- Ostatu-zerbitzua indartuko dugu. Herrian ditugun emergentziazko harrera etxeen, tutoretzapeko-etxebizitzen eta tutoretzapeko apartamentuen azterketa egingo dugu, eta beharrezkoak direnak gaituko ditugu.

- Beterri-Buruntza mankomunitatearen presentzia indartzearen aldeko apustua egingo dugu. Besteak beste, bazterkeria arrisku egoeran dauden pertsonen gizarteratze soziolaborala sustatzeko enpresak sortzeko.

- Lan mundurako aholkularitza eskainiko dugu.

- Adingabeen babeserako sistema eta zerbitzuak antolatuko ditugu, sarean lan eginez.

- Adinekoen jarduera fisikoak garatzeko programak diseinatuko ditugu: prebentzio-programak osatu, modu integralean eta adin ezberdinetako eskaintzarekin.

- Ezgaitasun fisikoa zein psikiko dutenentzako aukerak zabalduko ditugu herrian, aisialdiari dagokionez, lanari dagokionez eta bita jarduera fisikoa egiteko baliabideei dagokienez ere, beste herri batera joateko beharrik izan gabe.

- Zaintza behar duten herritarren beharrei erantzuteko eta bizi-kalitatea hobetzeko neurriak hartuko ditugu:

    - Etxez-etxeko sistema indartuko dugu.

    - Eguneko zentroa indartuko dugu.

    - Ko-Pago zerbitzua indartuko dugu.

- Zahartzaroaren gaineko hausnarketarako espazioak sortuko ditugu, nola zahartu nahi dugun pentsatu eta alternatibak lantzeko.

- Etxebizitza komunitarioen proiektua aztertuko dugu eta garatzeko urratsak emango ditugu.

- Harrera-protokoloa eta harrera-plana definitu eta aktibatuko dugu, etorri berriei harrera egin eta beharrezko baliabideak eskaintzeko.

- Pobrezia energetikoari aurre egiteko neurriak hartuko ditugu. Besteak beste, arazo ekonomikoak dituzten familiei hornidura mozketak ekiditeko akordioak

erdietsiko ditugu gas eta elektrizitate hornitzaileekin; eta gizarte-bonuak aterako ditugu kontsumitzaile ahulen errealitatea egokitzeko.

- Energia-pobreziaren aurkako herri mailako plana osatuko dugu, egoeraren diagnosian oinarrituta, kontsumitzaile ahulen eta “juxtu” dabiltzanen nortasuna identifikatzeko eta neurri prebentibo eta aringarriak hartzea errazteko.

- Beharrezko baliabide ekonomikoak eskainiko ditugu familia zaurgarrientzat eskolaz kanpoko jardueretarako, beka-sistema, esaterako. Halaber, sozialki zaurgarriak diren haurrei eta etorkinei harrera egin, eta eskolaz kanpoko jarduerak egokitzeko neurriak hartuko ditugu.

- Aniztasun funtzionalaren kolektiboari ikusgarritasuna emateko neurriak abian jarriko ditugu eta haien beharrei erantzuteko baliabideak eskainiko ditugu. Horretarako, egoeraren diagnostikoa osatuko dugu, eta neurri-zuzentzaileak aktibatuko ditugu haien bizi-kalitatea hobetzeko.

Herritar guztien parte hartzearekin gobernatu nahi dugu, komunitatearekin kooperatuz: hori da gure egiteko modua. Udalak eta herritarrak elkarrekin lan egiteko espazioak eta erabakiguneak sortuko ditugu. Baliabide publikoak modu eraginkor eta arduratsuan erabiliko ditugu.

Udal baliabideen  kudeaketa arduratsua eta partehartzailea burutuko dugu eta gure lehentasunetako bat Udal baliabideak optimizatzea izango da, herritar eta auzotarrekin ere harreman zuzena mantenduz.

Gainera, Lasarte-Oriako elkarte eta pertsona fisikoek beren lana egin ahal izateko, udal baliabideen erabilera ahalbidetzen jarraituko dugu, besteak beste, programazioen kudeaketa eta erabilera anitzeko espazioen kudeaketa indar eginez.

- Bide administratiboak modernizatzeko urratsak emango ditugu, udal baliabideak teknologizatuz.

- Leiho bakarraren funtzioa garatuko dugu, herritarrak udalera joatean jarraibideak jaso eta laguntza zuzena izan dezaten.

- Udalaren kudeaketa partekatua egingo dugu, besteak beste, herriko kulturgile, sortzaile, elkarte eta eragileekin batera programazio partekatua osatuko dugu. Horretarako:

  - Herriko sortzaile, ekintzaile, artisten.. datu-base eguneratua osatuko dugu eta datu-base hori baliatuko dugu herriko programaketa egiteko.
  - Programazio politika bat sortuko dugu, herriko taldeek haien lanak plazaratzeko aukera bermatuko duena.
  - Egonaldiak eta deialdiak eskainiko dizkiegu herriko sortzaileei: estreinaldiak espazioen truke, esaterako.
  - Erabiltzaileen balorazioak jasoko ditugu etengabe eta horien arabera egokitu eta antolatuko ditugu udal baliabideak.

- Espazioen erabilerari eta kudeaketaren arazoari irtenbidea emango diogu. Horretarako:
  - Lokalak egokitu eta elkarte eta eragileei esleituko dizkiegu.
  - Udaleko espazioak berrantolatu eta horien erabilera sustatu/erraztuko dugu.
  - Espazioak erabiltzeko baliabideak eta erraztasunak jarriko ditugu.
  - Gazte Lekuaren funtzionamendua berrantolatuko dugu eta erabiltzaileen beharretara egokituko dugu.
  - Ordenantza eta tasetan hobariak aplikatuko ditugu, herriko elkarte eta eragileentzat espazioak eskuragarri egoteko, erraztasunak emateko eta erabilera sustatzeko.
  - Ikastegiak irekiko ditugu: gaur egun liburutegiak ordutegi murriztua du eta aforoa mugatua.

- Udaleko ekipamenduen erabilera eta herritarren asebetetze-maila jasoko duen azterketa egingo dugu, ekipamenduetara zuzenduko diren lurzoruen kopurua eta baldintzak ezartzeko (Biltegi funtziodun lokalak. Biltzeko lokalak. Emakumeen etxea. Kultur Espazioak, Auzoetako erabilerarako lokalak, Aterpe erabilgarriak).

- Ekipamenduen plan-estrategikoa osatuko dugu, eta lehentasuna emango diogu egun dauden eraikinak berrerabiltzeari ekipamenduak diseinatzerako orduan.

- Kontratazio publikoen aldeko apustua egingo dugu, energia publikoaren kontsumoa eta udalak egiten dituen kontratazio publikoetan energiaren %100 jatorri berriztagarrietatik izateko helburuarekin.